



2016ko HAUTESKUNDE OROKORRETAKO PORTAERA (2016ko uztaila) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia ekainaren 26ko Hauteskunde Orokorretan EAEko biztanleek izandako hauteskunde portaera izan da.

Landa lana Hauteskundeen ondoko egunetan egin zen, 2016ko ekainaren 27 eta 28an.

INTERESA ETA HAUTESKUNDE-KANPAINAREN JARRAIPENA

Hauteskundeekiko interes handia, baina 2015ekoetan baino gutxixeago

Herritarren %54k diote interes handia edo nahikoa izan dutela iragan ekainaren 26ko Hauteskunde Orokorrekiko; interesa apur bat jaitsi egin da 2015eko Hauteskundeekin alderatuta (%62 izan ziren).

Hauteskunde hauek hizketa gai izan dira, askotan edo noizean behin, familiarekin %69rentzat eta lagunekin %59rentzat; portzentajea %40raino jaisten da lankide edo ikaskideekin. 18 eta 29 urte arteko biztanleek gainerako adin taldeetakoek baino interes handiagoa erakutsi dute.

Jendartearen %75ak hautagairen baten elkarrizketa edo debaterik ikusi edo jarraitu du hauteskunde-kanpainan, %50ak alderdiren baten programa edo propaganda irakurri du eta, aldiz, soilik %6 joan da bilera edo mitinen batera.

Herritarren %35ek hauteskunde-kanpainari buruzko informazioa jarraitu dute Interneten edo sare sozialen bidez; portzentajea %63raino igotzen da gazteenen artean.

Bestalde, herritarren %60k Hauteskunde-aurreko inkesten berri izan dute, 2015eko hauteskundeetan baino apur bat gehiagok (%55 izan ziren).

BOTOARI BURUZKO IRITZIAK ETA HAUTESKUNDE PORTAERA

Euskal esparruko gaiek dira botoan gehien eragin dutenak

Gehiengoak deritzo botoa ematea eskubidea dela (%54), eta %37k, aldiz, betebeharra dela. 64 urtetik gorako herritarrak nabarmendu dira azken iritzi horren alde, %50.

Herritarren %44k diote botoa erabakitzean batez ere Euskadirekin lotutako gaiek eragin dietela, %25ek diote Espainiako gaiek eragin dietela gehiago eta %18k biek eragin dietela. Gipuzkoarrek, 64 urtetik gorakoek eta EAJren eta EHBilduren boto-emaileek gainerakoek baino gehiago diote batez ere Euskadiko gaiek eragin dietela boto erabakian.

Boto-emaileen %78k kanpaina hasi aurretik erabakita zuten botoa ematera joango zirela, %12k kanpaina zehar erabaki zuten, %3k Hauteskundeen aurreko egunean eta %7k Hauteskundeen egunean. Azkenean botoa ematera joan ez zirenen artean, %61ek kanpaina hasi aurretik erabaki zuten, %16k kanpaina zehar, %2k Hauteskundeen aurreko egunean eta %19k Hauteskundeen egunean bertan.

Botoa erabakitzean faktore garrantzitsuenak alderdi politikoa (%44) eta proposamen edo programak izan dira (%39), eta neurri txikiagoan hautagaia (%6).

Herritarren %61ek botoa konbentzimenduz eman zuten, hainbat zalantzekin %15ek eta aukera txarretan onena zela uste zutelako %22k. 2015eko Hauteskundeekin alderatuta, gehitu egin dira aukera txarretan onena aukeratu zutela diotenak.

Botoa ematera joan zirenen %93 konforme daude emandako botoarekin.

Botorik eman ez zutenen artean, %23k diote, emaitzak ikusita, nahiago luketela botoa ematera joan izan balira.



EMAITZEN EZAGUTZA ETA BALORAZIOA

Gehien-gehienek diote Espainiako emaitzak negatiboak direla, 2015ean baino nabarmen gehiagok. Iritzi zatiketa Euskadiko emaitzei buruz

Herritarren %94k dakite PP izan dela Espainian botorik gehien lortu dituen, eta %74k diote Hauteskundearen emaitzak gehienbat negatiboak direla. Ehuneko hau asko handitu da 2015eko Hauteskundeekin alderatuta, orduan %45ek zioten emaitzak gehienbat negatiboak zirela eta %29k ondo ikusten zituzten.

Euskadin boto gehien lortu dituen alderdiari buruzko ezagutza mugatuagoa da, %76k dakite Elkarrekin Ahal Dugu koalizioa izan dela. %37k diote emaitzak gehienbat positiboak izan direla, %30ek gehienbat negatiboak direla eta %32k ez dute iritzirik eman. Euskadiko emaitzen balorazioa ere 2015ekoa baino okerragoa da, baina ez da Espainiako emaitzei buruzkoa beste aldatu.

GOBERNU OSAKETA

Aukera nahiena PSOE+Elkarrekin Ahal Dugu da, baina aukera gehien dituen PP+Ciudadanos dela uste da

EAEko herritarrek PSOE eta Elkarrekin Ahal Duguren arteko hitzarmenaren alde egingo lukete Espainiako Gobernuaren osaketarako (%34k aipatu dute gehien nahiko luketen aukeratzat). Hala ere, %2k bakarrik uste dute horiek osatuko dutela Gobernu; %23k uste dute PPK eta Ciudadanosek osatuko dutela, %14k PPK bakarrik gobernatuko duela, eta %11k PPK eta PSOEek egingo dutela Gobernu.

HURRENGO HAUTESKUNDE AUTONOMIKOAK

Gehienek uste dute EAJk irabaziko dituela Hauteskundeak eta %38k hala izatea nahiko lukete

Herritarren %60k uste dute EAJ izango dela hurrengo Hauteskunde Autonomikoetan boto gehien izango dituen alderdia, %13k Podemos-Ahal Dugu, %3k EHBildu eta %1ek PP. %23k ez dakite edo ez dute erantzun.

Hurrengo hauteskunde Autonomikoetan irabazle izatea nahiago den alderdiari buruz galdetuta, %38k nahiko lukete EAJk lortzea boto gehien, %14k EHBildu, %12k Podemos-Ahal Duguk, %2k PSE-EEk eta %1ek PPK. %32k ez dute iritzirik eman.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1000 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,16$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2016ko ekainaren 27a eta 28an egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 1ean